

Ebazpena: R 20/2022

Espedientea: 35/2015

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 6an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburuak eta Sofía Arana Landin eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean AFA) aurrean planteatutako gatazkari buruz, zeina Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari baita, 35/2015 espedientezenbakiarekin. Gatazkaren helburua HFSAko langile jakin batzuen 2011 eta 2012ko lan pertsonalaren atxikipenak ordainarazteko eskumena zehaztea da.

I. AURREKARIAK

1.- HFSA enpresak Araban du helbide fiskala, eta kartak fabrikatzen eta saltzen ditu.

2.- HFSAk Gizarte Segurantzako kotizazio-kontu bakarra du langile guztientzat.

3.- HFSAk AFari ordaintzen dizkio bere langile guztiei egindako lan-atxikipenak.

4.- 2014ko urriaren 29an, ZAEAk administrazio ez-eskudunean atxikipenak sartzeari buruzko txosten bat bidali zion AFari, merkataritza-jardueraren eremua lurralde erkidean duten HFSAko langileei soilik zegokiena, eta 74.493 euroko bidalketa-sorta eskatu zion.

5.- 2015eko martxoaren 9an AFAk bidalketa-sorta ukatu zuen; izan ere, haren iritziz, langile horiek lurralde erkidean zein foru-lurraldean lan egiten dutenez eta enpresak Araban duen lantoki bakarrari atxikita daudenez, berari dagokio atxikipenak.

6.- 2015eko maiatzaren 5ean, ZAEAk inhibizioa eskatu zion AFari langile horien atxikipenak ordainarazteko eskumenari dagokionez, baina AFAk bere eskumena berretsi zuen, 2015eko ekainaren 4an jakinarazitako idazkiaren bidez.

7.- 2015eko uztailaren 3an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Arbitraje Batzordean, zeina 35/2015 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari baita.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumenari buruz.

Ekonomia Itunaren 66. artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean auzirik sortuz gero, erabakitzea.

Gatazka honetan 7.Bat.a) artikulua interpretatu behar da, kasu zehatzari aplikatzeko, eta, horretan oinarrituta, ordainarazteko eskumena zehaztu.

2.- Aplikatu beharreko arauak:

7.Bat.a) artikulua, 12/2002 Legearen testuaren arabera (hori da 2011n eta 2012an egindako atxikipenei aplikatu beharrekoa, *ratione temporis*), hau xedatzen zuen:

“Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago”.

3.- ZAEAREN JARRERA.

ZAEAK uste du egiaztatuta dagoela atxikipena egin nahi dien langileek zerbitzuak ematen dituzten lekua lurralde komuna dela, eta foru-lurraldera joaten direla, noizbehinka, merkataritza-jarraibideak jasotzera, software-aldaketei eta aurrekontuei buruzko argibideak jasotzera, bezeroei buruzko informazioa ematera, helburuak berrikustera eta merkataritzako jarduera profesionalaren osagarri edo lagungarri diren beste jarduera batzuetara.

Horrekin bat etorriz, uste du arau nagusia (lan egiten den lekua) aplikatu behar dela, eta ez arau osagarria (atxikipen-lantokia), ordainarazpenaren eskumena zehazteko.

4.- AFaren jarrera.

AFaren ustez, zergapekoak lantoki bakarra du, berezko antolaketa duen ekoizpen-unitate gisa ulertuta, zeina Araban baitago, eta horri daude atxikita 6 langileak Gizarte Segurantzako kotizazioari dagokionez.

Arabako Foru Aldundiak adierazten du zergapekoak urtean zehar Arabako lantokira joan ohi direla, aldian behin, merkataritza-jarraibideak jasotzera, software-aldaketei eta aurrekontuei buruzko argibideak jasotzera, bezeroei buruzko informazioa ematera eta helburuak berrikustera. Beraz, haren ustez egiaztatuta dago lurralde erkidean eta foru-lurraldean ematen dituztela zerbitzuak, eta, ondorioz, lantokiaren hondar-arauari jarraitu behar zaio.

5.- HFSaren jarrera.

Zergapekoa bat dator AFaren jarrerarekin, uste baitu langileak beren jardueragatik joaten direla Arabako lantokira, eta hori beharrezkoa dela beren lana egiteko.

Bere jarrera berresteko, enpresak tributu-kontsulta lotesle bat aurkeztu zuen, 2015ean AFari egindakoa, zeinari emandako erantzunak lotura-puntua lantokia zela baitzioen.

Kontsulta horren arabera, eta bidezko konfiantzaren printzipioari jarraikiz, enpresaren iritziz ZAEAk ezin du irizpidea aldatu.

6.- Lantokiari buruz.

Lan- eta gizarte-legediaren arabera ez dira gauza bera langilearen atxikipen-zentroa eta langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoa.

Ohikoa da enpresek, beren jardueraren izaera kontuan hartuta, bulego edo sukurtsalik ez izatea beren jardunerako erabiltzen duten leku bakoitzean, nahiz eta eremu geografiko horretan zerbitzuak ematen dituzten langileak izan, baita eskusibotasun-araubidean eta/edo beste espazio batzuetan ez lehiatzeko betebeharrarekin ere.

Kasu horietan, langileak zerbitzuak ematen dituen eremu geografikoaren eta atxikita dagoen lantokiaren kokapen geografikoaren artean desadostasuna egotea onartzen da, eta horrek garrantzia izango du, besteak beste, eztabaida judizialak eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontuari buruzkoak ebazterakoan.

Hala, langile batek zerbitzuak lurralde erkidean eman arren, foru-lurraldeko lantoki bati atxikita egon daiteke, edo alderantziz.

Langileen Estatutuaren 40. artikulua onorioetarako, langilearen lantokia izango litzateke bere zerbitzuak eskusibotasunez ematen dituen tokia, eta ez atxikipen-lantokia. Horrela, zerbitzuak emateko eremu geografikoa aldatu gabe atxikipen-zentroa aldatzeak ez lioke eskubiderik emango kontratua bidegabeko kaleratze baten berezko baldintzekin deuseztatzeko.

Hala ere, lan-prestazioengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko, legegileak “*atxikipen-lantokia*” aukeratu du; horrek eskatzen du enplegatzailleak langilea “*atxikitze*” borondatea izatea, eta nahitaez eramaten gaitu lan-kontratuan kontsignatu den eta Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua zehaztuko duen zentzora.

7.- Lurralde erkidean eta foru-lurraldean zerbitzuak emateari buruz.

Ekonomia Itunak arau orokor bat eta ordezeko beste bat ezartzen dituenean, horrek esan nahi du kasu gehienetan arau orokorra aplikagarritzat jotzen dela.

Beraz, ezin da egin kasu askotan ordezeko hondar-araua artifizialki aplikatzera eramango lukeen interpretazio bat.

Ohikoa da zerbitzuak emateak berekin ekartzea beste betebeharrak osagarri batzuk, prestakuntzarekin eta birziklatzearekin, kongresu eta bileretara joatearekin eta abarrekin lotuta.

Betebeharrak ez-nagusi horiek beste lurralde batean guztiz hondarrekoa den prestazioa ematea dakartenean, ez dira kontuan hartu behar, ordezeko arauaren aplikazio behartua edo ez naturala izango litzatekeelako, irizpide nagusi edo orokorraren kaltetan.

Aztertzen ari garen kasuan, egiaztatuta dago lurralde erkidean destinatutako komertzialak Arabako zentralera jarduera osagarri edo lagungarriak egitera joan direla, eta, gainera, denbora hori benetan oso laburra izan dela urteko

lanaldia kontuan hartuta; beraz, ezin da horretan babestu ordezeko arauaren aplikazioa arau nagusiaren kaltetan.

8.- Zerga-kontsultari buruz.

Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua adierazten du Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizuna dela *“Ekonomia Itun honetan jasotako lotura-puntuaren aplikazioari buruz planteatzen diren kontsultak ebaztea”*.

AFAk emandako erantzunak ebazpen-eskumena duen organoari kontsulta ez egitea eragin duenez, ez du ZAEARI aurka egin diezaiokeen ondorio loteslerik sortzen, ezta bidezko konfiantzaren printzipioan oinarrituta ere; izan ere, zergapekoak jakin behar zuen eskumena Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeari zegokiola, Kode Zibilaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- ZAEAK 2011n eta 2012an lurralde erkidean lan egin zuten langileen atxikipenak ordainarazteko eskumena duela adieraztea, aurkeztutako zerrendaren arabera.

2.- Erabaki hau Zerga Administraziooko Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta HFSArri jakinaraztea.